

uk

158. zenbakia / 2009ko ekainaren 8a



fruten posterra

Zelan eskuratu?
Getxoko Euskara Zerbitzura deitu, eskatu eta eroan!


Tf: 94 466 00 10 - 11

Ezaugarriak

Neurriak: 40 x 70 cm

Zer dakar posterrak?

Fruten izenak
(euskaraz, gazteleraz,
frantsesez eta izen
latinez) eta eurak
jateko sasoiak.



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarmiraga, Maitane Nerekan,
Ainhoa Lores

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega

KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola,
Borbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Onueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkartein
Topaguneko partaideak da



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA:
900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Esne saltzailea, Astrabudua.
7. LEHEN ETA ORAIN. Udaletxerako igoera, Leioa.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Alberto Oswaldo Cossio.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Umore Azoka, Leioa.
28. ARGAZKIA. Zirkoa Portu Zaharrean.
30. BERBETAN. Jon Maya (Kukai).
34. FOTOGRAFIA. Istorio bat kameraren atzean, Aitor Arregi.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Cinegourland, zine eta gastronomia jaialdia.
43. MUSIKA. Kantuketan 2009. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Geure mitologiako 500 orri. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Asier Zarate mendizalea.
46. ELKARRIZKETA. Eider Corral, diseinugilea.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Doner Kebab, Algorta.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako ehiztariak Burgosen, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Armando Ribeiro .

Azala: Peru Isasi



30 Jon Maya

Berbetan

Dantza zaletasuna bazuen ere,
ogibide egin du Mayak. Soka izena
du bere azken ikuskizunak.



11 Alberto Oswaldo Cossio



54 Armando Ribeiro



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak

www.renaultleioa.com

Iparagirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA
Tf.: 94 480 46 02 • Faxe: 94 480 42 43



Leihatila

> Aiala Elorrieta

Gripea

Izenburu honek salatu egiten nau: dagoeneko berandu da gripeaz berba egiteko! Zenbait astez gripearean kontu honegaz bonbardatu gaituzte, baina ahaztu egin behar dugula ematen du orain, ordea. Hori bai, itzelezko izua sartu ostean. Ez dakigu arriskua erreala ala mediatikoa izan den, baina gobernu eta erakunde ezberdinek neurri jakinak hartu dituzte. Irakurri duzue Jose Saramagoren *Ensaio sobre a cegueira?* Eleberri honetan, era misteriotso batean, itsutasuna hedatzen hasten da. Izurrite bitxiaz babesteko, gizarteak gogor jokatzten du, gaixo daudenak gupidarik barik isolatuz. Hartutako neurriak ez dira nahikoa, eta kaosa da nagusi herrialdean. Kaos moralala. Gaur egungo gizartearen parabola parebakoa da: biziraupena eta etikaren arteko mugak, elkar jotzen dute. Egia esan, liburua gogorregia egin zitzaidan, eta amaitu baino lehen, utzi egin behar izan nuen. Izurrite larri baten mehatxuaren aurrean, benetan, hain era basatian jokatuko ote genuke? Eta erantzuna baiezkoa zelakoan, liburua itxi nuen. Liburua ixtea erraza izan zen, baina errealitatea hortxe dugu, gure aurrean, zabal-zabalik.

gu geu

Eguzkiak hedonizatuta

Negu gogorra izan dugu, eguraldiari dagokionez behintzat. Euria, hotza, ziklogenesia... euskaldunontzat ohiko fenomeno meteorologikoak ziren horiek, telebistako albiste izatera pasa ziren arte. Horiekaz batera, protagonista izan dira krisia, A gripea, langabezia etab. Eguraldi “txarra” amaitu eta eguzkiak kaixo esan duenetik, erabat aldatu dira gure igogailuko hizketalditxoak eta lo aurreko pentsamenduak. Eguzkiak hedonizatu egin gaitu. Goizetik gauera arte, gure plazerrean besterik ez dugu pentsatzen. Lana noiz amaitu hondartzara hurbildu ahal izateko, oporretan nora, azala beltzarantzeko edo taula hartu eta surfean ibiltzeko tartetxoa bilatu... horiek dira gure buru-hauste nagusiak. Lekutan lotu dira hil amaierako egoera ekonomiko itogarriak, saldu ezin ziren etxeak, extralurtarren gaixotasunak... uda garaian dena da mugarik bako plazerra. Sentitzen dugu, baina sufrimendu bako plazerra, eskasa izan ohi da.

UK-ko lantaldea

Iritzia

Cunsolo eta Aurreren krisiaren hausnarketagaz hasi ginen. Hona hemen artikuluaren bigarren atala.

Krisiaz baliatu (II)

Zein da beraz krisialdi honetan zehar izan dezakegun abagunea ? Une larri hone-tatik irteteko ditugun tresnak dira, zalantza izpirik gabe, gure helburuen gune. Oraingoan aurkeztera gatozkizuna gure hazkundearen bidean aldaketa bat besterik izango ez denaren jakitun gara. Beraz, dagokigun aukera aurkitzea izango da gure erronka, egoera txarrak jasan ezine-an dena ez delako egoera onak ikusteko biziko.

Zer gertatuko litzateke euriborraren kotizazioaz arduratzen garen beste gure baloreen hazkunde eta garapenagatik ardu-ratuko bagina? Gaur inoiz baino gehiago gure barrua landu eta garatzera jo behar dugu, hori delako inolako banku edo gobernuk ezin ken diezagukeen altxorra. Sinesmen-sorta hori guztia gure psikologia-egituraren zati dugu eta guk geure buruaz dugun irudia eratzen du. Gure etekina, bai pertsonala, bai profesionala ere, ez da inoiz guk geure irudiari buruz duguna baino

jasoagoa izango. Geure buruarekiko dugun irudiak termostato bezala dihardu eta ekin-tzak eta emaitzak zehazten ditu. Krisialdia aukera bihurtu nahi duen edo-zeinek beti gogoan izan behar duen itauna honako hauxe da: arreta zertan izan behar dut ? Itaun horri dagokion erantzuna bera, aipatutako aldaketa horretan oinarritzko arlo-etariko bat dugu, egiten ditugun gauzak beti era berean egiten jarraitzen baldin badugu, emaitzak, ezinbestean, beti berak izaten jarraituko dutelako. Hobetu ahal izateko jarrera aldatu beharra dugu, baita trebetasu-na ere. Jarrera hobetzeak bakarrik ez gara-matza eraldatzera. Trebetasunen hobekun-tzak berak bakarrik ere ez du eraldatze horretan inolako arrakastarik bermatzen. Egia esan, ezer egin ezean ez dugu hobe-tzerik. Eta hobera egiten ez duen guztiak, txarrera dagi. Hobetzeko ohiturak, estrate-giak, norbere inputak aldatu beharra dago. Geurea dugun kultura eta mentalitateari jarraiki ditugun buru baldintzapen ugariak ezabatu egin behar ditugu. Eraldatzeak aldez aurreko norberaren barne eraberritze proze-sua eskatzen du, gure auto-prestakuntza pro-zesuaren sakoneko berregituratzea. Azken finean, norbere baitako birlantzea eskatzen du. Eraldatzeak tresna berriak eskuratzeko edota tresna horiek berrasmatu ahal izateko gure hautemate eta ikasketarako etenik gabe-ko eguneratzea eskatzen digu. Mundua ez dago dakienaren esku, ikas-ten duenaren esku baino. Zerbait dakienak agian zaharkitutako zerbait besterik ez daki. Ikasiz dabilena eraberritzen dabil. Berrikuntzak ez du informatika- eta/edo elektronika- eta teknika-arloetara bakarrik mugatu behar. Berrikuntzak krisialdietan gelditzen zaigun abantaila bakarra dugun era azkarrago batez eta askoz gehiago ikasteko baliagarri liratekeen trebakuntzak geurega-natzeko metodo, prozesu eta/edo tresnen berrargitaraldia dakar.

(jarraituko du)

Gorka Aurre & Pablo Cunsolo
(Prakagorri S.L.- ILVEM Euskadi)



2009KO MAIATZA, ASTRABUDUA

Esnea etxez etxe / Badira orain dela urte gutxira arte gure herrien eguneroko bizimoduaren parte izan diren hainbat ogibide, gaur egun, zaharren kontutzat ditugunak. Horietako bat esne-saltzailearena da. Emakumezkoak ziren gehienetan; bizkarrean esne eratsi barriz beterako kankailuak hartu eta etxez etxe joaten ziren. XXI. mendean, tetrabrikaren garaian bizi garen honetan, pentsaezina egiten zaigu atea jotzen digun inori esnea erostea. Astrabuduan (Erandio), esne-saltzailea ikus daiteke oraindino kalean, umetxo baten katilua betetzen, eskolara joan aurretik ondo gosal dezan. o / Argazkia: **Asier Mentxaka**

2009



Uztailaren 20tik 26ra

Del 20 al 26 de julio

GAZTEENTZAKO EUSKARAZKO UDALEKUAK

COLONIAS JUVENILES EN EUSKERA

Izena emateko epea: ekainaren 8tik - 17ra (biak barne)

Plazo de matrícula: del 8 al 17 de junio (ambos inclusive)

Adina: 13-18 urte

Edad: 13-18 años

non: FRIAS-eko KANPALEKUAN

Ubicación: CAMPING de FRIAS

Leku-kopurua: 30

Número de plazas: 30

Diren lekuak baino ume gehiagok izena ematen badute, jendaurreko ZOZKETA egingo da.

En caso de matricularse más jóvenes que las plazas existentes, se efectuará SORTEO público.

Espeleologia, kayak, arku-tiroa, kirol-eskalada,

eta hainbat abentura-jolas.

Espeleología, kayak, tiro con arco, escalada deportiva

y otros tantos juegos de avetura.


INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzua

Servicio de Euskera de la Mancomunidad de Servicios de Uribe Kosta

Tfoa: 94-676.26.74 - www.uribekosta.org

 **gazte**
informazioa

 **URIBE KOSTAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEKO**
EUSKARA ZERBITZUA

 **Leizorako**



[lehen]

INDALECO OYAGUREN



[orain]

ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / LEIOAKO UDALETXERAKO IGOERA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > kaioa



2009ko maiatza, Arrietara hondartza

Testua: **Josu Gotzon Landeta** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

** Doinua: Desagertua deitzen naute*

Nork ez du ikusi hegan egiten
haizearekin orekan
hondartza, portu, itsaslabar (e)ta
olatuen aparretan?
Itsasoko ur gainetan
ibiltzen zaigu arretan,
ea arrain bat ikusten duen
eta harrapatu bertan.
Bada ene gogoetan
irudi ederra, benetan:
goiz argi batez ehun kaio inguru
Barinatxeko hareetan.

Hegada lasai patxadatsuan
zabiltza arian-arian,
itsas garbiko uretan edo
zabortegien erdian.
Eguzkiaren argian,
haize bolada handian,
“krae, krae” bat botatzen duzu
oso modu nabarian.
Beroki ederra agerian,
dotoreziaz abian,
garbiegia duzu itxura
mundu latz zikinegian.

Itsaso erdian eginda gero
ehiza oparo arina
harean duzu arrain eder bat
elikatzeko adina.
Behin oturuntza egina
airera berriz, jakina;
itsaso aldera altxako duzu
hegada polit (e)ta fina.
Zurekin dut maitemina,
eta nahi bete ezina,
ai gure herrian zu bezain aske
ibili ahalko bagina.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal iezaguzu atal honetan agertzea nahi zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

uk

zure **diru-laguntza** behar-beharrezkoa dugu!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / uk@aldizkaria.biz / Tf. 94 491 13 37

8UK

[talaia]

uribe > Erdi Aroko bizimodua ezagutzeko ibilbideak ekainetik aurrera

Erandioko Martiartu dorrean dago informazio puntuetako bat

Landa Gunearen Garapenerako Jata-Ondo Elkartek, Uribe eskualdeko hainbat herriren Erdi Aroko bizimodua erakusteko ibilbideak antolatu ditu. Ondo kontserbatutako eskualdeko eraikin esanguratsuenetan, panel informatibo interaktiboak ipini dituzte. Gurean, Erandioko Martiartu dorrea eta Plentziako herria aukeratu dituzte. Lehenengoan, Erdi Aroko leinuei buruzko informazio emango dute. Ukipen-pantailak, maketak, bideoak eta testuak izango dituen zutabea ipini dute dorrearen ondoan. Plentzian aldiz, Turismo Bulego barruan aurki daiteke erakusketa. Itsas hiribilduaren eguneroko bizimodua azalduko dute horretan; balea arrantza, ontzigintza eta nabigazio teknikiei buruz ikasi ahal izango da, besteak beste. Honez gain, Larrabetzun, Zamudion, Mungian eta Gatikan aurki daitezke informazio puntuak. ○

topagunea > ekainaren 30a arte eman daiteke izena VI. *Spraikadan*

Joan den urteko Spraikadan Erandion egindako graffitia

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak, uztailaren 18an ospatuko du VI. *Spraikada*, Euskal Herriko Graffiti Lehiaketa, Mutrikun (Gipuzkoa). Aurreko edizioetan Getxon, Tolosan, Gernikan, Mendaron eta Erandion egin duten bezala, euskal graffitigintzaren harrobia batu gura dute oraingoan ere Topagunekoek. Buruz burukoan, hamar graffiti lehiatuko dira, 1.500, 1.200 eta 900 euroko sariak eskuratzeko. Parte hartzeko, egin gura den graffitiaren zirriborroa bidali behar da ekainaren 30a baino lehen. Jasotako lan guztien artean, hamar onenak aukeratuiko dira eta horietatik izango dira Mutrikura joango direnak. Betekizunak: 16 urtetik gora izatea, graffitirako testua euskaraz egitea eta zirriborroa epe barruan bidaltzea dira. ○

Informazio gehiago: www.spraikada.com

saiaz getaria

HOTELA

Roke Deuna 25

20808 Getaria

Gipuzkoa

..harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

UK9

barrika > kanpo pintura lehiaketa antolatu du Udalak hilaren 14rako



Barrikako kaleetan egingo dute hilaren 14an pintura lehiaketa

Egun luze eta beroak hurreratzen diren heinean, herrietako kaleak ekimen kulturelek bete ohi dute. Barrikan adibidez, XXI. Kanpo Pintura Lehiaketa antolatu du Udalak ekainaren 14rako. Goizeko 09:00etan hasi eta arrastiko 17:30 arte egongo da lanak entregatzeko aukera. Edonork har dezake parte lehiaketan, eta ez da adin mugarik egongo. Lehiakideek, lan bakarra entregatu ahal izango dute; finkatutako denboran eta Barrikako kale eta txokoetan egin behar dute, kanpoan. Teknika libre izango da; lan guztiek Barrikako herria izan behar dute inspirazio iturri. Bost kategorია ezberdinetan banatuta egongo da lehiaketa: 6 urtera artekoak, 7-9 urte, 10-12 urte, 13-17 urte eta 18 urtetik gorakoak. Lehenengo hiru kategorietako irabazleek pintura materiala lortuko dute; gainontzekoei dirua emango zaie. Irabazleen izenak, ekainaren 21ean jakinaraziko dira, San Juan jaian egitarauaren barruan egingo den sari banaketan. ○

erromo > jaietarako lehiaketak martxan ipini ditu jai batzordeak



Jai Batzordeak antolatutako Koadrila Eguneko argazkia

Erromo eta Pinuetako Jai Batzordeko lagunak motorrak berotzen hasi dira abuztuan egingo diren jaiei begira. Lehiaketa bi eta erakusketa berezia prestatu dituzte. Alde batetik, urtero egiten den marrazki lehiaketan izena emateko epea zabaldu dute. Kamisetak, zapiak eta jaietako liburuxkak apaintzeko marrazkiak egin beharko dituzte parte hartzaileek. Bestalde, musika talde lokalen lehiaketa egingo dute. Horietan bietan izena emateko epea ekainaren 19a arte egongo da zabalik eta Pinuetako eta Santa Eugeniako Kultur Etxeetan aurki daitezke lehiaketen oinarriak eta izena emateko fitxak. Honez gain, Erromoko artistak jaietan zehar Kultur Etxean egingo den erakusketan parte hartzera bultzatu gura dituzte. Azken hau antolatzeko, hilaren 9an batuko dira Santa Eugenian arrastiko 20:00etan. ○



“Ezin dut arte diziplina bakarra aukeratu; guztiak maite ditut”

Alberto Oswaldo Cossio > artista polifazetikoa

Ekainaren 5ean, Plentziako Kultur Etxean, artista gazte batek immigrazioaren inguruko hausnarketa berezia egitera gonbidatu zituen bertaratutakoak. Alberto Oswaldo Cossio du izena; orain lau urte eskas etorri zen gurera Santa Cruz de la Sierratik (Bolovia). 25 urte baino ez baditu ere, sortzeko gogo nekaezinak izaera oso ezberdinetako hainbat lan abiatzera bultzatu du dagoeneko. Dantzaria, idazlea, zuzendaria, aktorea, abeslaria, margolaria... arte diziplina gehienak jorratu ditu; izan ere, artea bere nortasunaren zatia da: *“Gurasoak margolariak nituen eta txikitatik sartu ninduten mundu honetan. Nire lehenengo antzerki lana 7 urtegar egin nuen. Ezin dut diziplina bakarra aukeratu, guztiak maite ditut”*. Euskal Herrian aukera politak aurkitu ditu, nahiz eta bidean oztopo asko gainditu behar izan dituen: *“Talde bategaz hasi nintzen beharreetan, baina ganora gutxi zegoen. Nik ezin nuen horrela jarraitu eta bakarka, bakarrik egiten hasi nintzen”*. Horietako bat izan zen Goñi Portalen aurkeztu zuena, “El inmigrante”, hain zuzen ere: *“Poema handia da. Immigrazioa beste puntu batetik begiratzera gonbidatzen du. Bizitzan garrantzitsuena barre egitea da; hori da ondorio nagusia”*. Cossiok berak, kultura barri batean murgiltzeak dituen alde onak eta txarrak ezagutu ditu: *“Berba egiteko modua, dantzatzekoa... ohiturak ezberdinak dira. Baina moldatzea ez da zaila gogoa izanez gero”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Reprografía

Imprimatze eta plano kopiak •
Kartelak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •

Hotela eraikitzeko oztopoak

Punta Begoñako galerietan Barcelo kateak eraiki gura
duen luxuzko hotelaren **etorkizuna arriskuan egon daiteke**
auzokideek aurkeztutako helegiteagatik, **besteak beste**

Arriluze Kaiko galerietan bost izarretako hotela eraikitzeko proiektua aurkeztu zenetik, nabariak izan dira kontra azaldu direnak. Orain, inguruko auzokideek sortutako elkarteak aurrera pausoa eman eta helegitea aurkeztu du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenaren aurrean; beren etxebizitzak hustu gura den mendiaren gainean kokatuta daudelako, eta legez kontrakoa irizten diotelako husteari.

Punta Begoñako galerien proiektuaren etorkizuna kolokan egon daiteke. Izan ere, egitasmo honek, bost izarretako hotela eraikitzeko ideia proposatu zutenetik, oztopo ugari aurkitu dute bidean.

Egitasmoaren barri eman zenetik, asko izan dira kontra agertu direnak, Getxo Bizia kasu. Herri plataforma honek galerien erabilera publikoa defendatzen du: bere garaian, udalak helburu horregaz eskuratu zuela azaldu du Christian Reinickek, Getxoko plataformako kideak.

Baina orain, Arriluze kaiko auzokide elkarteak, bere aldetik, beste urrats bat eman eta proiektua gelditzeko helegitea aurkeztu du auzitegiaren aurrean. Euren etxebizitzak lekututa dauden mendi magala hondeatzea aurreikusten duelako eta legez kontrakotzat jotzen dute egitasmoa. Beraz, bertako biztanleak mesfidati agertu dira euren etxeak arriskuan ikusten dituztelako. Ekintza honen bideragarritasuna



Punta Begoñako galeriak

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenaren esku geratu da eta beraz, 40 milioi eurotako inbertsioa suposatuko duen luxuzko hotelaren eraikitzea bertan behera gera daiteke. Hala ere, Joseba Arregi, Getxoko hirigintza zinego-

«Punta Begoñako galerietan hotela eraikitzearen kontra azaldu da bertan bizi den hainbat auzokide»

tzia egitasmoari eragiten ez diola adierazi du Euskal Telebistako albistegietan, proiektua aurrera doala dio Arregik.

Arestian aipatu bezala, Punta Begoñako galerietan eraiki gura duten hotelak arazo handiak topatuko ditu; izan ere, Barcelo hotel-sareak kultur ondare izendatuta dauden galeria hauen eraispena

eta barrien eraikitzea bilatzen du Labein-Tecnalia teknologia zentru pribatuaren ikerketan oinarrituta. Txostenean, galeriaren egitura oso hondatuta dagoela eta ez lukeela lanik txikiena ere jasango azaltzen da.

Honen harira, Bizkaiko Arkitektuen Ondarearen Batzordearen iritziz, konterbatzeko eta mantentzeko baliabide tekniko baliagarriak daude, eta horregatik, hain zuzen ere, galerien deuseztea lekarkeen edozein eskusartzeren kontra agertu da.

Azken hitza Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak du, nahiz eta azken hau, dagoeneko, ez den oso baikor agertu proiektuaren aurrean.

Behin betiko proiektua egin barik dago oraindik, Barcelo Kateak horretan dihardu, amaitzen, alegia; lanen hasiera data ere, zehaztu barik dago. ○

Hondartzako egonaldia

biribiltzeko animazio gunea Ereagan



Udalerriko hondartza handiena denez, Ereaga aukeratu dute ekimenaren lehenengo ekitaldia lekutzeko

Getxoko Udalaren Turismo Arloak bultzatuta Dinamizazio Zerbitzua eskainiko dute aurtengo udaldian (hilak 5-irailak 30) Ereaga hondartzan. Bultzatzaile-antolatzaileek adierazi dutenez, ekimen hori aitzindaria da Bizkaia aldean eta helburua hondartzan animazio eremua sortzea da. Programatutako jarduerak eskainiko dira bertan, horrelako ekimenetan adituak diren begiraleen zaintzapean. Hondartzako erreferentzia puntu izatea gura duen guneko zerbitzu hori bultzatzeko 18.000 euro bideratuko ditu Udalak.

Aurten, ekimena antolatzen duten lehenengo aldia denez, udalerriko hondartza bakar batean ipiniko dute animazio gunea, Ereagan hain zuzen ere; antolatzaileek azaldu dutenez, udalerriko hondartza zabalena eta bisitari gehien jasotzen

jasotzen dituen delako.

Turismoa eta Ekonomia Sustapenerako zinegotzi Aitor Soloetak adierazi duenez, *“kirol, jolas edota aisialdi izaera duen, gaurko biztanleen joera, gura eta beharrikaz bat datorren, eta beste kostalde leku batzuetan obiko bihurtzen dabilen”* ekimena udalerrian eskaintzea da asmoa.

Animazio gunean egunero egongo dira ekitaldiak, bereziki umeei eta gazteei begirakoak, eta gainera aste akabuetan ekintza bereziak antolatuko dituzte. Eguneroko jardueren artean hurrengoak daude: ludoteka, lantegiak, ur-jokoak, kirol olinpiadak, lehiaketak etab. Horiez gainera, jaieguneetako ekintzetako batzuk ondorengoak izango dira: ipuin-kontalariak, magia ikuskizunak, rokodromo puzgarria, Singstar-erako agertokia etab. ○

IA 4.000 GAZTEK AGENDA 21 PROGRAMAN HARTU DU PARTE

Ikasturte honetan, ia 4.000 umek parte hartu du Getxoko Agenda 21 programan. Ekimenaren 5. edizioak uraren erabilera izan du ardatz, eta honetan parte hartu duten zentruak Larrañazubi, Erromo, Zubilleta eta Geroa eskolak, Azkorri ikastetxea, San Nikolas ikastola eta Aixerrota institutua, izan dira besteak beste. Horrela, bertan parte hartu duten gaztetxoek ikasturtean zehar burututako lanak aurkeztu dituzte; hala nola, eskoletako ur kotsumoa ikertu dute, sentsiberatze kanpainak, urteerak, lehiaketak edo senitartekoei egindako inkestak ere burutu dituzte. Bestalde, Getxoko alkate den Imanol Landak saneamendu-sareko hobekuntzaren plana martxan ipiniko duela adierazi du eta honegaz batera, jendeak uraren kontsumorako aurrezteagaz sentsiberatzeko helburu duen aste berdea sustatuko duela gaineratu du.

EMAKUMEEN ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

Emakume elkarteentzako diru-laguntzen deialdirako, Getxoko Udalak 20.480 euro bideratuko du. Eskaearak aurkezteko epea datorren ekainaren 16an amaituko da. Ekimen honek emakumeen partehartze politikoa eta soziala errazten duten programak eta proiektuak garatzea, eta udalerrian gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzea du helburu. Diru-laguntza eskatu gura duten elkarteek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: irabazi asmorik bako erakundea izatea, nortasun juridikoagaz, egoitza soziala Getxon izatea, emakumeek osatuta izatea eta Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen erregistroan eta Getxoko Erakundearen Udalerriaren Erregistroan izena emanda egotea. Eskaearak udaletxean edo herriarrei arreta egiteko Getxo, Itzubaltzeta / Erromo eta Algortako bulegoetan aurkez daitezke, Legeak aurreikusten dituen lekuez gain.

san inazio

autoeskola

1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP

baimenak

Telletxe 13 / Tf. 94 460 00 45

ALGORTA

Garaizar

barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net

Illeta kalea 1• ALGORTA

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

Tamara 2

46990 ALGORTA

94 491 12 71

irati@gorta@gmail.com

Jon Otamendi > eskultorea

“Orokorrean, egun, ez da eskultura edo pinturaren inguruan asko berba egiten”



Jon Otamendi

Artista barriei bultzada emateko asmoagaz, Ertibil lehiaketa ospatu da aurtan ere. Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako ekimen honen 26. edizioan, Jon Otamendi getxoztarrak jaso du bigarren saria bere “Prometida” obragaz. Bizkaitarrarentzat, lehiaketa gehiagotan parte hartu arren, Ertibilekoa izan da garrantzitsuena. Hemendik eta abendura arte Otamendiren lana Bizkaiko hamar herritan egongo da ikusgai.

—Zelan eraiki zenuen “Prometida”?
—Marrazki bategaz hasi nintzen. Gero honi, beste marrazki askok jarraitu zioten, beti forma batean pentsatzen eta aurrean izateko gauza bat izango zela jakinda. Azkenean, burdina egitura bat soldatuz egiten saiatzea erabaki nuen. Honi fluo-reszentea jarri nion, indarra kentzeko nolabait, eta aldi berean, ixteko. Amaitzeko, gainean bil zitekeen lona erroilu bat utzi nuen.
—Zer dela eta izen hori?
—Loreari, nire bikoteari, zin egin niola-ko. Lehenengo marrazkia oparitu nion,

ideia oso ondo zegoela eta benetan egin behar nuela esan zidan.
—Zein material erabili zenuen?
—Burdinazko tubo lauki zuzena, fluo-res-zente bat, bildutako lona bat eta fluo-res-zentearen kablea.
—Zergatik eskultore eta ez margolari, adibidez?
—Orokorrean, gaur egun, ez da eskultura edo pinturaren inguruan berba egiten. Une bakoitzean egokien iruditzen zaien bidea erabiltzen duen artista asko dago, baina honek ez du esan gura diziplina bakoitzak berezko ezaugarririk ez duenik.

Eskulturak, espazioan egoteko modu berezia du, eta ez da pintura, argazkiak edo bideoak bezalakoa.
Lanerako materiala aukeratzeko orduan, ematen diren eritmoak edo ireki-tzen diren aukerak desberdinak izaten dira. Honek guztiak berezko ezagupena meta-tzen duelakoan nago, eta adibidez, bideo bat, inmateriala izanik, modu eskultoriko batean landuta izatea posible egiten du.
—Zer suposatzen du Ertibil lehiaketan bigarren postua lortzeak?
—Oso ondo dago. Bai lanari dagokionez, baita maila ekonomikoari begira ere.

«Artista internazionalakaz eta hasi barriakaz ere asko ikasten dut»

Ertibil sarian hogeï lan aukeratzen dira, eta guztiek dute diru-saria. Hauetatik, hiru Jaurilaritzak eskuratzen ditu, saria handiagoa izanik kasu hauetan.
Eremu honetan lan eginda, zaila da batek hartzen duen norabidea egokia den jakitea. Lan nahiko pertsonala da. Halaber, beti laguntzen du, aldi berean lanean dauden pertsonakaz harremana izateak. Sari hauek, lan giro hori argira ate-ratzen dute.
—Beste eskultoreen eraginik izan duzu?
—Bai, baina niretzat ezinbestekoak izan diren hiru irakasleren izenak aipatu gura nituzke gainera; Angel Bados, Iñigo Cabo eta Josu Larrabaster.
Artista internazionalakaz, baita hasi barriak diren beste batzuek az ere asko ikasten dut. Lehenengoak erreferentzia bezala ditut, baina bigarrenak dena elkartruka dezakegu.
—Zer izan duzu inspirazio iturri?
—Dena. Benetan ederrak diren gauzek inguratzen gaituzte. ○

Oporretarako musika

Umeek “Opor Musikalak” ekimenean izena emateko epea zabalik ekainaren 12ra arte



Areetako Andres Isasi Musika Eskola

Uztailaren 6tik 17ra gaztetxoek ez dute aspertzeko astirik izango Andres Isasi Musika Eskolak eskainitako Opor Musikalak ekimenari esker. Lau eta hamabi urte bitarteko ikasleek adierazpen artistikoa garatzeko, musikagaz jolasteko programan parte hartu ahal izango dute. Horretarako, izena emateko epea dato-rren ekainaren 12ra arte egongo da zaba-lik. Izen-emate orria, diru sarreraren ordainagiria, Osakidetzako txartela eta argazki bat aurkeztu beharko da.
Ekimen honetarako, irakasle kualifi-katuek, irudimenez betetakoek, jolasak, antzezpenak, abestiak edo dantza bezala-

ko baliabideak erabiliko dituzte musika-ren mundua eta arte eszenikoak gazteei hurreratzeko, era atseginean eta dibertiga-rrian. Opor Musikalak gainera, euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, astelehenetik barikura, 09:30etik 13:30era arte.
Bestalde, Andres Isasi Musika Eskolak ehun bat leku eskainiko ditu eki-taldi honetarako, eta bertan umeek, gehienez hamabost lagunek osatutako tal-detan, lan egingo dute.
Prezioari dagokionez, 115 eurokoa da pertsonako. Azken egunean kontzertua egongo da eta bertan, parte-hartzaileei diploma bana emango zaie. ○

PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTSEN EMANALDIA BIOTZ ALAIN


Gaztetxoek Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazo euskaldun ezagunak ikusteko parada izango dute datozen ekainaren 16an eta 17an, martitzena eta eguaztena, Algortako Biotz Alai plazan eskainiko dituzten ikuskizunetan. Guztira lau emanaldi izando dira, egun bakoitzeko bi, lehenengoa arrastiko 17:00etan eta bigarrena 19:30ean. Sarrerak dagoeneko salgai daude bost euroan, Kultur Etxean.

ANTZERKI JARDUNALDIETAN ALDAKETAK

Getxo Antzokiko eraispena dela eta, bertan egiten ziren hainbat ekitaldi bertan behera geratu behar izan dira, Andres Isasi Musika Eskolako eszenatokiak ez baitauka leku nahikoa ekintza guztiak bertan hartzeko. Areetako Musika Eskolako tamainak datorren urriaren 9tik 18ra izango den Antzerki Jardunaldietako antzezki-zun batzuen aukeraketa baldintzatu du. Dekoratu handiak ez dira bideragarriak Andres Isasin, gainera arazo logistikoak ere oztopo bihurtu dira, kamioiek ez baitaukate eszenatokiaren inguruetarako sarbide zuzena.

KULTUR ARTEKO KARAOKEAN ABESTEKO AUKERA

Euskaraz kantatzeko gogoia badaukazu, Euskarashowa martxan da. Honetan Getxo nahiz kanpoko jendeak parte har dezake 94 466 00 10 telefonora deituta. Ekimenak kultura ezberdinetako pertsonak ezagutzeko aukera parebakoa eskaintzen du. Parte hartzeko, abesti bat aukeratu beharko da eta horrela, parte hartzaileek euskaraz eta beste hizkuntza batean abesten ikasiko dute. Gero, abesti hori, karaoke-jaietan kantatu beharko dute. Ekimenak kultura desberdinetako gastro-nomiaz gozatzeko aukera ere emango du.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu *(Telletxe 4)*

Telletxe 4 • Tf. 94 460 71 62 / Telletxe 15 • Tf. 94 460 42 44 • **ALGORTA**

Jose Luis Orozko > Goierriko Sokatira taldeko presidentea

“680 kilotan irabazteak aurrera jarraitzeko animoa eta jende gehiago batzeko aukera eman digu”

Goierriko Sokatira Taldeak Euskal Autonomia Erkidegoko 680 kilotako kategorian irabazi du. Azken sari honek, Erandioko taldearen sari zerrenda luzatu du. Jose Luis Orozkok esperientzia zelakoa izan zen eta sokatiraren egoera azaldu digu.

—Zelakoa izan da aurtengo denboraldia?
—Neuk pentsatuko nukeena baino hobea. Ez nuen pentsatuko hasieratik tirada guztiak irabaziko genituenik.
—Azken urte honetan aldaketarik izan duzue taldean?
—Bai. Joan den urtean, tiralari barriren bat etorri zitzaigun eta aurten ere beste hiru.
—Zuen sari zerrenda luzerako, beste bat baino ez da 680 kiloko txapelketan eskuraturutakoa, zer suposatzen du horrek?
—Aurrera segitzeko animoa. Oso garrantzitsua da talderako eta oro har, jende gehiago batzeko.
—Zer daukazue prestatuta aurrez aurre?
—Datorren zapatuan beste kategoria batean parte hartuko dugu eta horren ostean, Ingalaterran ospatuko den torneo internazional batera joateko asmoa daukagu.
—Belgikan, Ingalaterran, AEBn... munduko bazter askotan lehiatu zarete, zela-



Goierri Sokatira Taldea

ko esperientzia izan da? Zelan ikusten da atzerrian sokatira?
—Esperientzia handia, beste mundu bat da. Beraiek modu desberdinean ikusten dute. Kanpoan indar handiagoa dauka. European, Herbehereetan, Ingalaterran edo Grezian, adibidez, indar handia du sokatirak. Gainera, talde askok parte hartzen du. Hemen oster, zazpi-zortzi bat talde dago, eta Belgika bezalako herrialdeetan ehun bat talde egon daiteke.
—Zelan ikusten duzu sokatiraren egoera

Euskal Herrian?
—Ondo ez. Talde gutxi dago, nahiz eta kanpora begira, maila ona daukagun. Ez dira talde barriak irteten, eta daudenak gero eta zaharragoak dira.
—Baina, desagertzeko zorian egon daitekeela uste duzu?
—Talde barriak irteten ez badira, eta jendea ez badator, ez dakit; baina beno, ez dut uste. Beti egongo da nor edo nor prest mantetzeko, sokatira Euskal Herrian egon den herri kirolen arteko bat delako. ○

Ibaizabalen bidaian

Erandioko Udalak Ibaizabalera bisita gidatuak sustatuko ditu itsasontzian



Erandio ezagutarazi gura dute ekimen honegaz

Erandioko Udaleko Kultura Sailak Ibaizabal itsasadarra txaluparien lankidetzagaz batera, ibaiaren uhaskatik bisita gidatu zerbitzua abiatuko du. Ibilbideak, ekaineko domeka guztietan izango dira eta dohainik.
Horrela, hilaren 14an eta 28an bisitak gazteleraz eskainiko dituzte eta 21ean, barriz, euskaraz. Bidaiak Erandion erroldatutakoei eta ez daudenei zuzenduta daude; hori bai, erandioztarrek lehentasuna izango dute. Plaza-kopuruari dagokionez, egun bakoitzean, 30 lagunek bidaia ahal izango du, eta hamalau urtetik beherakoak pertsona nagusi bategaz joan beharko dira. Urteera lekua Altzagako ontziralekuan izango da eta interesatuak 10:50ean egon behar-

ko dira 11:00etan irteteko. Buelatzeko ordua 12:30ean edo 13:00etan izango da.
Udalak azaldu duenez, alde batetik, Erandio ezagutarazi gura dute, herrian ontzigintzan tradizio handia baitago; beste alde batetik, beste era bateko kultura eta aisia sustatzea izango dira bisita hauen helburu nagusiak. Gainera, gasolinoaren erabilera bultzatu gura dute, itsasontzi hau ikono bilakatu baita, ibaizabaleko eskuma aldeko herri honetan. Egun, gasolinoaren zerbitzu honek Erandio Barakaldoko Lutxana auzoagaz lotzen du.
Interesatuak 94 489 01 49 telefonora deitu beharko dute, 09:00etatik 13:00etarako ordutegian. ○

KIROL MATERIALAK KUBAKO ESKOLA ETA GIMNASIOETARA

Erandioko Udalak Forum Sport dendak emandako kirol materialak betetako hiru edukiontzi bidali ditu Kubara. Ekimena Cooperacion y Desarrollo Gobernuz Kanpoko Erakundea eta Kubako Gobernuaren laguntzagaz aurrera ateratu dute. Hiru erakundeek Las Tunas-eko Andres Leyva Rodriguez eskolako umeen bizi kalitatea hobetzeko, gizarte, heziketa eta kirol materialerako lankidetzak akordioa sinatu zuten. Gainera, aipaturako hiru edukiontzien Cayo Hueso gimnasioan hobekuntzak eta makinaria barria sartzea ahalbideratuko ditu.

JOSEBA GOIKOURIAK LEKUKOA HARTUKO DIO ERANDIOKO ALKATEARI

Joseba Goikouria Zarraga lehenengo alkateorde jeltkideak Erandioko alkateza hartuko du. Egungo alkatea den Mikel Arieta-Araunak berak Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbara Ofizioaleko Zuzendaritzako postua hartuko baitu. Goikouriak 46 urte ditu, Kimikaria da eta EHUn lizentziatu zen, ondoren, Eroski kooperatiban behar egiteko. 90 hamarkadatik 2003ra arte Kalitate Arloan lan egin zuen eta egun, Bazkide kooperatibista izaten jarraitzen du, nahiz eta udal ardurak hartzeko, eszedentzia eskatu behar izan duen.

ERANDIOKO MUSIKA ESKOLAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Erandioko Musika Eskolak 2009-2010 kurtzorako matrikulazio epea ireki du. Horrela, bertan izena eman gure duten ikasle barrientzako matrikula epea ekainaren 1etik 15era izango da. Matrikula egiaztatzeko idazkaritza ordutegia: 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 19:00etara izango da.



Basolanak

- Zuhaitz landaketa
- Inausketak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
D E I T U !

Tf. 94 467 17 13

FAX 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Sakelakoa

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

ZUGARRAMURDIKO
SORGINAREN EGUNA
GERTUAGO

Datorren ekainaren 20an, Sorginaren Eguna ospauko da Zugarramurdin. Hau dela eta, Uribe Kostako Mankomunitateak autobus zerbitzua eskainiko du. Jaia goizeko 11:00etan hasiko da “Tusiri” antzerki taldearen eskutik, Sorginkeriaren feria eta Erdi Aroko Merkatuagaz batera. Egunean ekimen desberdinak eskainiko dira, Akrobaziak eta malabareak, ipuin kontalaria euskaraz, Itziar Salegi eta “Atzo, gaur eta biharko senda-belarrak. Naturopatia magikotik, naturopatia zientifikora” izenburupean eskainiko duen hitzaldia, Bruixot Rebeld-ek aurkeztuko duen “Sua eta urari eskertzeko erritua” eta amaitzeko herriko antzerki taldeak eskainiko duen Akelarre antzezpena. Aipatzekoa da, egunean zehar XVII. mendeko egoerak eta pertsonaiak, inksidorea barne, herriko kaleetan ikusteko aukera izango dela.

8 URTETIK GORAKOEK
SKATE ESKOLAN PARTE
HARTZEKO AUKERA

8 urtetik aurrerako gaztetxoei zuzenduta, BBK Skate Eskola Tour ekimena abiatu da. Tour-a Bizkaiko hamar herritik igaroko da, ekainaren 21ean Sopelak hartuko du txanda. Peñatxurin, monitore aditu biren laguntza izango dute parte-hartzaileek eta honez gain, skater profesional bi izango dira erakustaldiak eskaintzen. Aipatzekoa da, oinarrizko pausoak eta derrigorrezko babes neurriak zeintzuk diren jakitea dela ekimenaren helburu nagusia. Bestalde, antolatzaileek adierazi dutenez, egunean bertan, izena emateko aukera egongo da, nahiz eta parte-hartzaileek beren ekipamendua eroan dezaketen skate-aren bultzatzaileetakoa den Soda enpresak babeserako tresneria eskainiko die. Amaitzeko, txapelketa egingo da herrietako irabazleakaz Bilbon.

Sanpedroak ate joka

Ekainaren 25ean hasi eta 29an amaituko dira aurtengo Sopelako jaiak



Sopelako Jaiak, 2007

Sopela dagoeneko prest dago ospaki-zunetan murgiltzeko, ekainaren 25ean hasi eta San Pedro egunean amaituko dira aurtengo jaiak. Horrela, Egun guztietan Gaztegunea eta umeen gunea, trena, jolas edo rokodromoa egongo dira. Ekainaren 25ean, gimnasia, tai-txi eta irristaketa erakustaldiak izango dira frontoian eta Zipiriñen. Gauean aldiz, herriko musika taldeek Kop-egaz batera girotuko dute txosna gunea.

Hurrengo egunean ere, plater nagusia kontzertuak izango dira Sopelan Des+Caradas-en emanaldia eta herriko

musika taldeakaz. Zapatuan, ostera, herri bazkaria egingo da Plaza Beltzan eta honen ostean, euskal dantzek giroa berotuko dute Patxi Perezen eskutik. Gauean, su artifizial eta erromeriagaz ondo pasatzeko aukera egongo da. Domekan, Korrontzi musika taldea oholtza gainera igoko da eta astelehenean San Pedro egunean, alegia, Saioa Iturriagak eta Itxaso Paiak bertso emanaldia eskainiko dute; “Bizardunak” folk taldeak kontzertua emango du txosna gunean eta Jai Amaierako Ikuskizun erraldoia izango da herriko plazan. ○

Naroa Saratxaga > Sopelana Surf Camp-eko arduraduna

“Umeek uda era desberdinean bizitzea eta kirola egitea dira udalekuen helburua”



Naroa Saratxaga

Uda honetarako, ekimen barria ipini du martxan herriko hainbat gaztek, umeek udan, kirola praktika dezaten. Udaleku irekiak dira eta Sopelana Surf Camp izena jarri diote. Esan bezala, gaztetxoei zuzendutakoak dira, eta ekintzak, besteak beste, surfa, eskalada, senderismoa, kometak egitea, brujula erabiltzen ikastea eta skate-a izango dira. Larrabasterrako Arrietara hondartzan egingo dituzte ekintzok.

—Azal egiguzu zertan datzan egitasmo barri hau?

—Astelehenetik barikura iraungo duten udaleku irekiak dira, sei urtetik gorako umeentzat. Jardueri dagokienez, kirol udalekuak izango dira. Gure ekintza nagusia surfa da; beraz, bost egunez ibiliko gara surfean; baina eskalada, skate-a eta senderismoa egiteko aukera ere egongo da. Gainera, umeak euren etxean bertan hartuko ditugu goizeko 08:00etan, eta 18:30ean itzuli. Bazkaria ere guk eskainiko diegu.

Asteburuetan, 18 urtetik gorakoent-

zako ekintzak prestatu ditugu; eskaintza berezia izango da eta parapentea egiteko aukera egongo da.

—Zelan bururatu zitzaizuen ideia?

—Iaz, Sopelako Peñatxuri Surf Taldeagaz udako ikastaroetan ibili nintzen; gurasoek seme-alabak denbora gehiagoz gugaz utz zitzaketen esan ziguten, udan lan egiten zutelako. Hortik abiatu genuen kontua.

—Zein da udaleku hauen helburua?

—Umeek uda era desberdinean bizitzea, kirolean murgilduta.

«Kirol udalekuak dira hauek, eta gure ekintza nagusia surfa izango da»

—Zer egin behar da izena-emateko?

—600 300 244 telefonora deitu edo info@sopelanasurfcamp.com-era idatzi.

—Etorkizunari begira zer?

—Aurtengo emaitzek esango digute dato-rrenerako zer egin; agian udaleku itxiakaz ausartuko gara. Umeak gugaz lotuko lira-teke lotara, bost egunez. ○

LAIK
Taberna

Bentatxu 2
48600 Sopela
Tf. 94 676 03 28

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak

Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER
DEVNÀ
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

AURTENGO TXAKOLIN
EGUNA EKAINAREN 14AN
OSPATUKO DA

IX. Txakolin Eguna ospatuko da Berangoko Sabino Arana kalean. Aurtan ekainaren 14an, domekan, eta 21 ekoizlek hartuko du parte. Jaialdia eguerdiko hamabietan hasiko da txitxi-burduntzi, txorizoa eta nola ez, herriko txakolin dastaketagaz; amaieran, txakolingileen artean sariak banatuko dira.

BOST EGUNEZ LUZATUKO
DIRA IDI PROBAK
TORREKOLANDAN

Datorren ekainaren 12tik 16ra Idi proba txapelketa egongo da Berangoko Torrekolanda probalekuan. Proba guztiak gaueko 21:00etan izango dira. Informazioa zenbaki honetan: 649 479 481.

BERANGOKO SMARTUS
JOKO INTERAKTIBOA
BIZKAIAN LEHENA

Ume berangoztarrek *Smartus* jokoagaz olgutzen lehenak dira Bizkaia osoan. Berangoeta parkean ipinitako jolas hezigarriak ordenagailu bidez lortuko du umeak kirola egitea. Aisialdiko monitoreek ordenagailua erabiltzen eta haien ideiak jolas barri ezberdinetan moldatzen irakatsiko diete gaztetxoenei. Hauek oso desberdinak izan daitezke; matematika, natur zientziak, musika, kirola, birziklapena... lantzen dituztenak daude, besteak beste.



JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



AIXERROTA BHI
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Merkataritza

sustatzeko

Berangoko udalak herriko denda txikiei bultzada emateko ekimena abiatu du



Sabino Arana da denda gehien biltzen dituen kalea

Berangoko Udala merkataritza txikiei laguntzeko ekimenean murgilduta dago. Herri honetan, lehenengo aldiz, merkataritza elkarte baten eraketa planteatu du Udalak, Uribe Kostako Behargintza ordezkarietaz batera, dirulaguntza publikoaren sarbide edo heziketa kurtsoen eraketa errazteko asmoagaz.

Merkatariek bere aldetik, urte honetan zehar, aipatutako elkarte sortzeko helburuagaz hartu dute erronka hau. Berangoko dendariak diotenez, 30 urtean, Udalak banaka hartu izan ditu, ez baitzegeen inolako politika komunik. Hau dela eta, ekimenak errotik

atera gura du sektoreak bizi izan duen tirabira. Neurriei dagokienez, burututako bilerek Sabino Arana kaleko semipeatonalizazioa kontuan hartzeko balio izan dute. Dendariak gainera, kultura ekimen guztiak dendan ordutegira molda ditzaten eskatu dute, baita herriko auzo guztietara zabaltzea ere. Bestetik, eta berehalako neurri bezala, biztanleengan herriko dendan inguruan dagoen ezjakintasuna gutxitzeko gida banatuko da.

Gainera, dendarien ustez, bezeroen gutxitzea nabaria da herriaren egoitzalde ezagarrigatik, eta hipermerkatuaren konpetentziagatik. ○

Silvia Lopez de Guereñu > Hirigintza Zinegotzia

“Izendapenak, bisitariak gurera animatuko ditu”



Ramon Anasagasti eta Silvia Lopez de Guereñu, Plentziako Alde Zaharrean

Eusko Jaurlaritzak Ondasun Kultural izendatu barri du Plentziako hirigune historikoa. Udaleko lagunek, poztasunez hartu dute albistea. Izendapenak herriari ekarriko dizkion abantailez berba egin digu Silvia Lopez de Guereñu Hirigintza Zinegotziak.

—Noiz hasi zen izendapen prozesua?
—Otsailean Jaurlaritzako Kultur Sailetik deitu ziguten, hirigune historikoa Ondasun Kultural izendatzeko prozesua martxan zegoela esateko. Jaurlaritzako talde teknikoaren proposamena izan zen Plentzia izendapenerako aukeratzea. Maiatzaren 26an onartu zuten.
—Zelan hartu duzue albistea?

—Pozez zoratzen gaude. Bagenekien Plentziako hirigune historikoa garrantzi handiko monumentu multzoa zela, 1299an sortutako hiribildua baita. Udalean zonalde hori guztia birgaitzeko

plana daukagu abian 2002tik, eraikinak zelan babestu azaltzen duena. Baina, izendapenak lan hori erraztuko digu.
—Zer suposatuko du herriarentzat?
—Alde batetik, Jaurlaritzak eraikinak babesten lagunduko du, jarraibideak eta diru-laguntzak emanez. Eliza, Santiago Arkua eta Plazentzia museoko dorrea, babes bereziko monumentu izendatu ditu

«Bagenekien Plentziako hirigune historikoa garrantzitsua dela»

eta horiek ezin izango dira ukitu ere egin. Bestalde, jende asko ekarriko du herrira. Azken hori da guretzako garrantzitsuenak. Baina, izendapenagaz, hainbat gida eta ibilbidetan agertuko gara eta horrek bisitariak erakarriko ditu. Udaletik, hondartza eta itsasadarra bisitatzeaz gain, Plentziako ondasun kulturala ezagutzera animatu gura ditugu kanpotarrak. ○



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Ajuria
taberna

Andres Cortina 2

ALGORTA



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri 4, Tf. 94 460 30 03
ALGORTA

IPUIN LABURREN
LEHIAKETA PLENTZIAN

Araldi Kultur Elkarteak, 2009ko irailaren 20a arte izango du zabalik Ipuin Laburren XII. Lehiaketan parte hartzeko epea. Lanak euskaraz zein gazteleraz aurkeztu ahal izango dira eta 10 orrialdeko luzera izan beharko dute gehienez. Gutun-azal baten barruan aurkeztu behar dira Araldiko bulegoan (Kristo Enparantza z.g), egilearen datu pertsonalakaz batera. Hiru sari emango dituzte, 400, 275 eta 210 eurokoak, hurrenez hurren.

BARRIKOZTAR BATEK
IRABAZI DU ESPAINIAKO
GOLF TXAPELKETA

Jon Rahm barrikoztarrak Espainiako Golf Txapelketa irabazi du Kadete mailan. Maiatza hasieran jokatu zen txapelketa Larrabea Golf Klubean (Araba). Bigarrenarekiko bederatzi puntuko diferentzia lortu zuen Rahmek. 73, 68 eta 69 kolpeko bueltak lortu zituen.

URDULIZKO JAIETARAKO
KARTEL LEHIAKETA

Ekainaren 13a arte egongo da zabalik Urdulizko Jaietarako Kartel Lehiaketan parte hartzeko epea. Edozein teknika erabili ahal izango dute parte hartzaileek. Lanak euskarri zurrunean aurkeztu behar dira gutun-azal baten barruan eta egilearen datu pertsonalakaz. Irabazlearen izena ekainaren 26an jakinaraziko da eta 400 euroko saria jasoko du. Aurkeztutako lan guztiak Kultur Etxean egongo dira ekainaren 16tik 30era.

URDULIZ

Langabetuentzako lan poltsa osatuko du Udalak



Elortzako errotonda da ekimenaren barruan sartu duten lanetako bat

Langabetu kopuruak nabarmen egin du gora azken urtean; gero eta gehiago dira egoera ekonomiko ezegonkorrean dauden banakoak eta familiak. Arazo horri aurre egiteko, ekimen barria jarri du martxan Urdulizko Udalak. Herriko langabetuen errolda osatuko du, datozen hileetan herrian egin behar diren lanak aurrera eroateko kontrata ditzaten. Zerrendan izena emateko bete beharreko baldintza bakarrak, Urdulizen erroldatuta egotea eta izena ematen den momentuan langabezian egotea dira. Egitas-

moa, eraikuntza sektorean burutuko da hasieran; izan ere, sektore horretakoak dira datozen hilabeteetarako Udalak proiektatu-ta dituen lanak. Atxarteko hilerria, Elortzako errotonda, Haurreskola eta Udal biltegiak egiteko aukeratutako enpresei, aipatutako langabetuen erroldan dauden lagunak kontratatzeko eskatuko zaie. Ekimenaren arrakastaren arabera, beste sektore batzuetara zabalduko dutela iragarri dute, zabor bilketara eta bide garbiketara, besteak beste. ○

Ekain. 9 - ekain. 22

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Arteskola (umeak)**. Algortako erakusketa-aretoan. Ekainaren 20ra arte. Astean zehar 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:30era. Zapatuetan 10:00etatik 13:00etara. ► **Uribe Kosta en favor de personas con discapacidad intelectual** elkartearen tailerrak. Erromoko erakusketa-aretoan. Ekainaren 19ra arte. Astean zehar 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

ERANDIO

► **Ertibil Bizkaia**. Josu Murueta Kultur Etxean. Ekainaren 16tik 26ra.

MUSIKA

LEIOA

► **San Juan Bautista abesbatzaren emanaldia**. Leioako Auditoriumen. Ekainak 11, eguna, 20:00etan. ► **Leioako Gazte Orkestra**. Leioako Auditoriumen. Ekainak 12, barikua, 20:30ean.

ERANDIO

► **Euskal Kanturik Onena (EKO)**. Josu Murueta Plazan. Ekainak 20, zapatua, 20:00etan.

GETXO

► **II Getxotar Abesbatzen Eguna**. Erromoko Santa Eugenia plazan. Ekainaren 12tik 14ra. Barikuan eta zapatuan 21:30ean, eta domekan 20:30ean.

ANTZERKIA

BERANGO

► **ACADAE taldearen emanaldia**. Berangoetan. Ekainak 20, 19:00etan.



Nazioarteko Blues Jaialdia

► **Musika**

Nazioarteko Blues Jaialdia

Udaren etorreragaz, Getxo&Blues da udako jaialdi handiei hasiera emateko arduraduna. Ekimenaren 21. edizioa ekainaren 12tik 14ra bitartean izango da Santa Eugenia plazan. Emanaldi guztiak 21:30ean hasiko dira, azken egunean izan ezik. Egun horretan 20:30ean izango baita. Emanaldi guztietarako sarrera doan izango da. Aurten oholtza gainera igoko diren taldeei dagokienez, ordea, barikuan Belceblues eta Lonnie Brook Band igoko dira. Zapatuan, Mike Hammer & The Taxi Drivers eta Koko Taylor and Her Blues Machine eta domekan, amaitzeko, Johny Mars & The Big Blues Band arituko da.

• Non: Erromoko Santa Eugenia plazan • Noiz: Ekainak 12, 13 eta 14

ERANDIO

► **Kaleko antzerkia: Ellas bailan solas antzezkingunagaz**. Euskadi Plazan. Ekainak 13, zapatua, 17:00etan.

GETXO

► **Pailazoak: Pirritx, Porrotx eta Mari Motots eta bere piratak emanaldia**. Biotz Alai plazan. Ekainaren 16 eta 17an, 19:30ean. Sarrera. 5 euro.

LEIOA

► **Mundo y final**. Auditoriumen. Ekainak 20, zapatua, 22:00etan.

ZINEMA

BERANGO ► **Ballet: bideo emanaldia**. Berangoeta Kultur Etxean. Ekainak 11, eguna, 18:00etan.

ANTZERKIA

BERANGO

► **ACADAE taldearen emanaldia**. Berangoeta Kultur Etxean. Ekainak 20, zapatua, 19:00etan.

ERANDIO

► **Kaleko antzerkia: Ellas bailan solas antzezkingunagaz**. Euskadi Plazan. Ekainak 13, zapatua, 17:00etan.

LEIOA

► **Mundo y final**. Auditoriumen. Ekainak 20, zapatua, 22:00etan.

BESTEAK

GETXO

► **Balkoitik Balkoira bertso saioa Igor Elortza eta Unai Iturriagaren eskutik**. Portu Zaharreko Etxetxu plazan. Ekainak 19, 22:00etan. ► **Gorpuzti Eguneko Jaia**. Portu Zaharreko Etxetxu plazan. Ekainak 14, domeka.

BERANGO

► **Idi probak**. Torrekolanda Probalekuan. Ekainak 12, 13, 14 eta 15, 21:00etan.

URDULIZ

► **Umeentzako animazioa: Tailerrak eta puzgarriak**. Kultur Etxean. Ekainak 22, astelehena, 17:00etan.

ERANDIO

► **Euskal Selektzioen Jaia**. Astrabuduan. Ekainak 13, zapatua. ► **Martiartuko Jaiak**. Ekainak 13 eta 14an, zapatuan eta domekan.

GORLIZ

► **III Dantzari Txikia (kalejira, dantzaldia, erromeria...)**. Iberrebarrin. Ekainak 13, zapatua. ► **Kirolari Ateak Zabalik Jaia**. Bizkaiko Esku pilota txapelketa. Kiroldegia/pilotalekuan. Ekainak 14, domeka.

BARRIKA

► **Jon Deunaren IX: Nekazaritza eta artisautza azoka**. Ekainak 21, domeka.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIOA
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia

Tf. 94 668 15 51
Faxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Kar-kar-kar

Maitzaren 21 eta 24 bitartean ospatu zuten Leioan Kaleko artisten X. Umore Azoka. Kaleetan zehar sudur gorritz zein korbata grisez mozorrotutako clown, malabarista, pailazo eta aktoreak ikusi ahal izan genituen. Bakoitzak bere teknika propioa erabili zuen inguruan zeuden zahar, gazte eta umeei barrea eragiteko. Eguneroko erritmo itogarritik aldentzeko aukera ederra da urtero Leioakoa. Kar-kar-kar ...

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Udako zirkoa

Algortako Portu Zaharrean

Maiatzean zehar zirkoa izan genuen Algortako Portu Zaharrean. Baina zirkoa, ez da XXI. mendeko kontua. Argazkian ikus daitekeenez, lonak eskuz josi eta horiek sostengatzeko egurrezko makilak erabiltzen ziren garaian, bageneukan zirkoa Getxon. Hondartza jendez lepo zegoen, zirkoko langileek arrastiko espektakulua prestatzen zuten bitartean. Azken bainua hartu eta gero, praka laburrak eta alkandora jantzi eta ilusioz gainezka hurreratzen ziren umeak lehoiengana; ez zen horrelakorik egunero ikusten!

[berbetan]

Mutiko koxkorra zela herriko Ereintza dantza taldean hasi zenean, Jon Mayak (Errenteria, 1977) ez zuen amestu ere egiten dantzarekiko zaletasunak eskainiko zion jarduna. Bere abarketen mugimendu dotoreari esker, Euskal Herriko Aurrekulari onenaren txapela bere buruan izan du urte askoan (1997,1998, 2000, 2002, 2004 eta 2005). Ostera, kordelak apur bat estutu, eta dantza tradizionaletik abiatuta ikuskizun garaikideak sortzeko asmoarekin, Kukai konpainia sortu zuen. Ordutik gaur arte ezagun egin diren *Deiadarra* (2001), *1937*, *gogoaren bidezidorretatik* (2002), *Otehitzari Biraka* (2005), *‘Hnuy illa...’* (2008) eta *Soka* (2009) ikuskizunak taularatu ditu. Bide oparo horren eta ondo egindako lanaren adierazgarri da martxoan jasotako Errebelazio onenari Max saria.

Jon Maya

burua Artearekin dantzan

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Kukai**

—Hurbilen dugun ekitalditik hasteko, Leioako Umore Azokan estreinatu duzue *Soka* ikuskizuna. Prestatzen duzuen lehenengo kale-ikuskizuna da, gainera.

—Soka-dantza batean inspiratuta dago, Gipuzkoako soka-dantzan batez ere. Orduan, bost dantzarirentzako eta bi perkusio jolerentzako pieza sortu dugu, soka-dantza tradizionalan oinarrituta, baina pixka bat begirada berri bat proposatuz. Horretarako, Kukaiko dantzariok Pantxika Telleriarekin batera bilaketa lana egin dugu, lengoaia koreografiko berri baten bilaketa lana; *Soka* da horren emaitza.

—Pantxika Telleriaren berbetan, “proiektu esperimental” da.

—Kontua da Kukairekin 7 bat urte darabagula lanean, eta sortu ditugun ikuskizunek norabide eta estilo jakin bat daukatela esan daiteke, Tanttaka Teatroarekin batera egindakoa. Kasu honetan, ikuskizun hori aparteko bide bat bezala hartu dugu, esperimentala horregatik, pixka bat aldentzen delako orain arte egin dugunetik; eta gainera, esperimentazio

lanetik, bilaketa lanetik, abiatzen delako. Azkenean, pieza bakarrean bukatu da hori guztia, baina pixkanaka tailer batzuen ondorioz hasitako lana da.

—*Soka*-ren beste ezaugarrietako bat, edo erronketako bat, dantza kalera ateratzeko gogoia izan da, gizartera hurbildu asmoz.

—Bai, batetik kontuan hartu beharrekoa da zein garaitan egin dugun ikuskizun hau. Gu momentu honetan *Hnuy Illa...* ikuskizunarekin biran gaude eta hori areto barruko ikuskaria da. Orduan, horren osagarri bezala, kalean ere zerbait egiteko momentua zela ikusten genuen, eta gaine-

“Dantza kale-ikuskizuna egiteko momentua zela ikusten genuen, eta horretarako gogoia ere bageneukan”

ra horretarako gogoia ere bageneukan. Antzokiak jendearekiko sortzen dizkigun mugak eta baldintza teknikoak albo batera utzi eta kalera ateratzeko gogoia geneukan, jendearengandik gertuago egoteko. Bide batez, dantzaren inguruan sentsibili-

zazio lana egitea ere egokitzen zaigula iruditzen zaigu, eta horren barruan, dantza jendea dabilen lekura gerturatzea ona da, pixkanaka jendea ohitu dadin dantza ikuskizunak eta abar ikusten.

—Estreinaldiko harrera ona izan zen, ezta?

— Bai, pozik gaude! Bertan estreinatzeak aukera izatea pozgarria izan da guretzat. Bi emanaldiak politak izan ziren, bereziki larunbatekoa. Bi egunetan jende asko izan genuen ikusten, jendearen harrera ona izan zen eta gustura gaude egindako lanarekin. Gainera, kanpoko zenbait programatzailek ere interesa adierazi dute

lanarekiko, eta badirudi Leioako emanaldien ondorioz beste emanaldi batzuk etorriko direla.

—Mireia Gabilondok zuzendu eta Tanttakarekin batera taularitzen duzuen *Hnuy Illa* ikuskizunarekin ere jarraitzen



duzue. Joseba Sarrionandiaren berbak dantza daitezke, horrenbestez?

—Urtebete da ikuskizun honekin gabiltzala. Hau bai ulertu behar dela Tanttaka Teatroarekin dugun elkarlanaren ildo horretan. Elkarrekin egiten dugun hirugarren ikuskizuna da, hasieratik oso-oso ondo joan den ikuskizuna. Gozamena da, dantzatzeko oso atsegina, jendeak kristoren harrera ona egin dio... Horren adierazgarri dira egin ditugun emanaldi kopurua, hurbildutako jendetza... eta eskuratu berri dugun Max saria ere bai. Zapore oso ona uzten ari zaigun ikuskizuna da.

—Zelan sortu zen ideia? Zelan ipini *Sarriren* berbak dantzan?

—Elkarlan horren barruan, ikuskizun horretarako poesiarekin lan egiteko gogo geneukan, ez zehazki *Sarrir*ekin, baizik eta euskal autore desberdinekin. Hasi ginen gauzak begiratzten, irakurtzen, eta egia esan, *Sarriren Hnuy illa nyha majah yahoo* poema liburuan hainbeste material dago! Eta hain ederra! Azkenean konturatu ginen liburu horrek berak bazeukala ikuskizuna, gehiago bilatu gabe. Orduan, horretan murgildu ginen eta pixkanaka, beti egiten dugun bezala, puzzlea osatzen joan ginen: dantza, gidoia, musika, irudiak etab. Azkenean lortu genuen ikuskizun hori osatzea, oso prozesu polita izan da; lan handikoa, baina oso eroso, eta biran hasi garenetik oso atsegina, jendearengan sentsazio oso ona uzten du, eta horrek ere poztzen gaitu.

—Aipatu duzu Max saria. Lan neketsuaren ostean, sari batek, batez ere kanpotik emandakoa denean, zapore ona utziko du.

—Kristoren poza hartu genuen! Dagoeneko denbora pixka bat pasa da, errealitatera bueltatu gara eta denak normal jarraitzen du. Baina momentuan, elkarriketetan eta, esaten nuen “ezin dugu ukatu oso-oso pozik gaude eta oso harro!”. Eta hala da. Baina, lanak ez ditugu horretarako egiten, azkenean, gure lana taulan edukitzea da saria, eta zaleak izatea; hori da benetan gure lanarekin bilatzen duguna. Baina, egia da, horrelako onespena beti eskertzen dela;

esan daiteke gure ibilbidea ere indartzen duela, konfiantza ematen digula. Dena den, uste dut, gugan baino, kanpoko jendearengan gehiago eragiten duela, guri begiratzeko moduan.

—*Hnuy Illa-n* dantza eta poesiak bat egiten dute; atzera begira, 1937an historia eta dantza uztartu zenituzten, *Otehitzari Birakan* eskultura-artista eta dantza...

“*Hnuy illa nyha majah Yahoo-n* hainbeste material dago! Hain ederra! Horrek bakarrik bazuen ikusizuna...”

Dantza beste arte diziplinekin bateratze bidea da Kukairena?

—Filosofia horrekin sortu zen Kukai: dantza tradizionaletik abiatuz, hori da gure lan tresna nagusia, baina ikuspegi garaikidetik dantza ikuskizunak, zein dantza eta beste joera artistikoen arteko loturak bultzatzeko sortu zen, eta horretan dihardugu. Horregatik beti jende askorekin kolaboratu izan dugu, ondorioz, gure lanetan dantzarekin batera beste arte diziplina ezberdinak ageri dira. Hori da gure apustua, horretan jarraitzen dugu egunerokoan ere.

—Ematen du asmatu duzuela: sariak, ikuskizunok izan duten harrera ona...

—Oso pozik gaude. 1937ekin hasi ginean abentura txikia zen, ez genekien zer ekarriko zuen gure ahalegintxoak. Eta 1937 itzela izan zen! Ezer ezetik bat-batean

“Max saria jasotzean nioen: “ezin dugu ukatu oso pozik gaude, oso harro”, baina lanak ez ditugu horretarako sortzen”

zirkuituetan sartzea oso inportantea izan zen. Gerora egin ditugun lanekin ere, finkatuago ikusi dugu gure burua, denbora horretan konpainia asko sendotu da: gaur egun eguneroko lana dugu konpainian, horrek aukera eta baliabide gehiago ematen dizkigu, ikuspegi orokorragoa hartzeko ere balio du. Hasieratik oholta gainean gaude-

nok berberak garen arren, lan egiteko moduak-eta dexente aldatu dira. Bereziki, nabarmenduko nuke proiektua sendotu dela, etorkizunari begira ere proiektu sendoa dela.

—Dantza, arte diziplinen neba-arrebatatik txikiena izan litekeena, bultzatu duzuen uztarketaren ondorioz badirudi hazi dela.

—Nik uste, dantza beti egon dela eta dago-

ela hor, eremu oso ezberdinetan gainera: dantza tradizionala herri honetako plazetan egon da beti, eta dago. Horrez gain, ikuskizunen arloan, dantzariak eta ikuskizunak ere hor egon dira. Baina egia da, eta nik uste gaur egun ere hala dela, beste diziplinekiko aldea egon litekeela, kultura baldin bada gure gizartean diziplinen artean anaia txikia, bada, kulturaren barrukoa dantza da. Hori, datuak eskuan, oso erraz ikusten da, dantzara bideratzen diren baliabideak begiratu baino ez dago, eta hori ez dago ukatzerik. Baina, egia da, azken urteotan sortu diren zenbait proiektuekin dantza zirkuituetan eta antzokietako programazioetan gehiago azaltzen ari dela, hazkundera dagoela, publikoa ere ohitzen ari dela, pixkana denon artean bagoazela bidea egiten; oraindik, dudarik gabe, asko daukagu egi-

teko, baina ari gara pixkana.

— Denen artean diozu, eta Kukaik elkarlanean jarduteko duen ohitura horretan dagoeneko aipatutako Tanttankaz gainera, berbarako, Ballet Biarritz aipa liteke.

—Aurrera egiteko beti da interesgarria jende ezberdinarekin proiektuak konpartitzea. Ballet Biarritzekin, eszenatokian baino, hi-

tzarmena daukagu, ez da hainbeste taula gainean gauzatzen. Harremanak agente ezberdinekin ditugu, dantzakoekin eta oro har kultura arlokoekin ere. Baina Tanttaka da gehien landu dugun harremana, horrez gain: Logela Multimediakoekin, Pantxika Telleriarekin orain etab. Bestelako kolaborazioak ere sarritan egiten ditugu, kasu: Juan Mari Beltranekin, orain gauzatxo batzuk prestatzen ari gara Oreka Tx-koekin... —2001eko *Deiadarra* hartatik gaur arte oihartzun ozena luzatu du Kukaik...

—Bai, alde ezberdinetan. Alde batetik, proiektu bezala, dudarik gabe, aurrerapauso dexente egon dira. Gaur egun ikuskizunak egiteaz gain, Erreterian ere dantzaren sentsibilizaziorako programa bat aurrera darabagu Udalarekin; eta etorkizun hurbil eta ez hain hurbilerako ere baditugu beste zenbait proiektu... Horrek erakusten du ez

gabiltzala inprobisatzen, baizik eta ikuspegi zabalago batetik ari garela lanean. Bestalde, dantzari eta barne funtzionamenduari dago-kionez, aurtun lehen aldiz eguneroko lan batean murgildu gara, dantzarekin prestakuntza lana ere egiten ari gara. Eta ikusten dugu dantzari bakoitza gai dela gauza ezberdinak egiteko gero eta gehiago, dantzari bezala asko aurreratzen ari direla; horrek,

“Ez 6, ezta 20 urterekin ere ez nuen hau guztia imajinatzen. Zaletasuna da dantza niretzat, eta ogibide egin dut”

dudarik gabe, isla dauka gure lanetan.

—Sei urteko Jon Mayak amesten al zuen hori guztia?

—Ez, inondik inora! Ez 6, ez 16, ezta 20 urtekoak ere! Dantzan nire herriko dantza

taldean hasi nintzen. Kukairekin eta irakasle egiten dudana lanaz gain, gaur egun ere astean bitan jarraitzen dut entsegetara joaten, ahal dudana ekarpena egiten. Niretzat dantza zaletasuna izan da, orain ere hala da, zaletasun handiena! Baina ogibide ere bihurtu dut. Baina, karrera ikasi nuen, Kazetaritza, kazetari lanean ere aritu nintzen... Pixkana dantzaren kontua han-

dituz joan zen eta azkenean erabaki behar izan nuen. Eta batetik irakaskuntzatik eta bestetik Kukai proiektuarekin, aukera izan dut dantzara bakarrik jartzeko. Baina imajinatu? Inondik inora ere ez! ○

aldizkaria **etxean**
jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....

Kalea & zenb.....Herria.....

e-mail.....Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito).

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kuba / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tf. 94 491 13 37

32 **UK**

UK 33



L.D.B. EUSKAL HERRIA



ANESTESIA. EUSKAL HERRIA

80ko rocka iruditan

Andoingo Gaztetxea Rockaren gotorleku nabarmena izan zen 80ko hamarkadan. Bertatik igaro dira Euskal Herriko, zein nazioarteko rocker indartsuenak: Cicatriz, La Polla Records, RIP, Hertzainak, Scream, Toxic Reasons... Aitor Arregi "Txisto" musikazale andoaindarrak, kontzertuak iruditan batu zituen. Bera hil eta hamabost urtera, Santi Manterolak eta gazte asanbladak rockaren altxor hori herriari oparitzea erabaki dute. 3.000 argazki eskaneatu eta *Istoria bat kameraren atzean* liburu DVD-a kaleratu dute. Interneten, www.istoriobatkamararenatzean.blogspot.com helbidean daude ikusgai argazkiak.

Argazkiak: **Aitor Arregi "Txisto"**



BAP. EUSKAL HERRIA



CICATRIZ. EUSKAL HERRIA



DANBA. EUSKAL HERRIA



ESKUPITAJO. EUSKAL HERRIA



M-AK. EUSKAL HERRIA



KARKAXA. EUSKAL HERRIA



RIP. EUSKAL HERRIA



PORKERIA T. EUSKAL HERRIA



INOR. EUSKAL HERRIA



QUEMANDO RUEDAS. EUSKAL HERRIA



SCREAM. AEB



DRAP BRUTS. CATALUNYA



PANDEMONIUM. HERBEEBREAK

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalegatze bat)
Tf. 94 491 23 79
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

**Etxera
eroango dizugu
gasoleoa**

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure erosketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

Uuribefm
107.8

Getxo Inbidea

liburuak

Geure mitologiako 500 orri

Aita Barandiaranek osatutako euskal mitologiaren lana 2 liburukitan euskaraz

Zenbat eta zenbat lan interesgarri ez diren argitaratuko mundu zabalean zehar, edo Euskal Herriko “txikitasunean”, inoiz gure begien aurrean paratuko ez direnak. Oste-
ra, batzuetan, menturaz, edo patuak halan gura izanda, liburu erakargarri bat parez pare jartzen zaigu eta azala zabaldu orduko antzematen diogu altxorra duela gorde-
tzen. Antzeko zerbait gertatu zaigu orain dela urte bi Ostoa argitaletxeak kaleratuta-
ko *Euskal Herriko Mitologia I* eta *II* liburu-
kiak esku artera heldu zaizkigun honetan.

Euskal antropologian eta etnologian ikerketa lan garrantzitsuak egin dituen nor-
baiten izena aipatzeko eskatuko baligute, akordura ekarriko genukeen lehenengoeta-

«Jatorrizko testua eta itzulpena zutabe paralelotan eskaintzen dira»

koa litzateke Joxe Migel Barandiaran (Ataun 1889-1991), *Aita* Barandiaran. Hain zuzen ere, berak 80. hamarkadan osatutako gaztelarazko lanaren itzulpena da berbagai dugun *Euskal Herriko Mitologia I* eta *II*. Itzultzaileek adierazten asmatu duten legez, “*egilea bera bizi zela... egin ezin izan zen itzulpen haren falta sumatzen zen*”. *Falta*, egilearen lan eskergarekiko zelanbai-
teko zorra, eta euskal irakurlea, oro har eus-



Joxe Migel Barandiaran

kalduna, asetzeko beharra bazegoelako. Horrenbestez, lan honen ekarpenik garrantzitsuena Barandiaranek batutako euskal mitologiaren ezagutza euskaraz ematea da. Halere, itzultzaileen esanetan, “*ezinbestekoa zirudien jatorrizko testuagaz alderatzeko erraztasuna edukitzea; beraz, jatorrizkoa eta itzulpena, zutabe paralelotan eskaintzen ditugu*”, eta jatorrizko testuaren gaineko hainbat azalpen ere erantsi dituzte liburuki bitan (bakoitzak 90 euro) banatutako ia 500 orrialdeetan zehar. Lanaren Atarikoak dioen legez, “*Lan hau ulermen magikoei eta animistei atxikitzen zaizkien izateen (izate, egitate eta gertakari) bilduma da...*” ○

liburuak



Etxe hutsean
Karlos Linazasoro
Alberdania

Gurasoen heriotza gainditzeko poesia liburua idatzi du Karlos Linazasoro idazle tolosarrak. Jadanik hutsik dagoen gurasoen etxera bisita egingo du, oroitzapenez beteta dagoen etxera. Sentimenduen laguntzaz, heriotzaren eta giza kondizioaren inguruan hausnartuko du.



New York, New York
Gotzon Garate
Elkar

Bizimodu eta kultura ezberdinak nahasten dira New Yorken; beste edonon aurkitzen diren alderdi on eta txarrak. 18 udalditan zehar, hiria ondo ezagutzeko aukera izan zuen Zaratek. Idazlea omentzeko, lan hau berrargitaratu du Elkarrek.

kirola

Algortar bat Himalayan Gasherbrum II zortzimilakoa igo asmoz, hilaren 27an urtengo da Asier Zarate



Asier Zarate Getxoko Udaletik jasotako diru-laguntza aurkezteko prentsaurreko egunean

Ez da lehen aldia Getxoko Udalak udale-
rriko kirolarien egitasmoak bultzatzeko diru-laguntzak ematen dituen; lehenago ere, besteak beste, eskalatzaile talde bati Yosemitearra joateko laguntza ekonomikoa eman zion, edota goi-mailako kirol jardue-
retan dabiltzan hainbat kirolariri ere eman dio babes. Oraingoan, Himalaya mendi-
lerroan (Asia) dagoen Gasherbrum II (8.035 metro) zortzimilakoa igotzeko egi-
tasmoa bultzatuko du Getxoko Udaleko Gazteria arloak 3.000 euroko diru-lagunt-
za emanez. Pakistango mendiaren gailurra zapaldu asmo duen espedizioako buru Asier Zarate Larrazabal algortar gaztea da, eta Gazteria arloko zinegotzi Koldo Iturbek azaldu duen legez, “*gura duguna da ez bakarrik elkarteei eman diru-laguntzak, baizik eta gazteek edo gazte taldeek sortuta-
ko ekimenak ere bultzatu, Zarateren proiektuagaz egin dugun legez*”. Espedizioak Zamudioko eta Sondikako Udalen eta IT21 Ingeniaritzaren laguntza ere lortu du. Zaratek eta beste 4 mendigoizalek osa-

tzen duten taldea: Jon Arostegi, Nestor Goikoetxea, Jabier Gorospe eta Gotzon Zu-
biaur. Espedizioa hilaren 27an abiatuko da Pakistanera, Gasherbrum II-ra, munduko 14 zortzimilako mendietako baterantz. Lehenengo astean bertako girora moldatzen eta trekking-a egiten ibiliko direla jakinarazi du Zaratek, oinarritzko kanpamentu nagusi-

«Mendira oxigeno artifizial barik eta sherpa barik igotzen ahaleginduko gara»

ra iritsi baino lehen. Ondoren, ia hil osoa izango dute zortzimilakoaren gailurrera heltzeko; espero dugu mendiak ahalegina saritzea. Boskotea alkarregaz ibiltzen da mendian (Pirinioak, Andeak, Alpeak etab.), urtean behin bidaia “handiagoa” egiten dute, hala aurten Gasherbrumera joatea era-
baki dute. Zaratek dioenez, “*aurreko espedi-
zioetako filosofiari eutsiko diogu, mendira oxi-
geno artifizial eta sherpa barik igotzen ahale-
ginduko gara*”. Ia itzulera gailurreko elurra dakarten Getxora. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

350 M²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO

KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA

48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

SERVITEC

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00

Kasune 18 · ALGORTA

44 UK

UK 45

Eider Corral > diseinugilea

“Nire lan prozesua eskura ditudan ideia edo ikusitako zerbaiten oinarrituta dago”



Eider Corral

Getxoztarrak bere bitxi bilduma barria aurkeztu du. Diseinugileak bost urte daramatza Bartzelonan beharrean. Bertan, estudioa dauka eta bitxien diseinuagaz batera, beste enkargu komertzialen eta esperimentazio pertsonalaren arteko lana egiten du. Corral, Publizitatea eta Harreman Publikoetan lizentziatua, Bilbon ibili zen lanean Bartzelonako diseinu eskola batera ikastera alde egin zuen arte.

—Zertan datza egiten duzun lana?
—Berez diseinugintzan egiten dut behar. Baina urteak eman ditut diseinu grafikoan lanean, eta orain ere horretan nabil; baina azken aldian grafikotik kanpo, diseinuaren barruan dauden beste esparru batzuetan murgildu naiz. Bitxi bilduma egin dut, baita portzelanazko figuratxo batzuk ere. Diziplina batetik ateratzeko asmoa neukan eta horretan ibili naiz azken urteotan. Nire estudioak diseinua orokorrean hartzen du, ez da diziplina batean soilik oinarritzen, diseinu esparru guztietan baizik.
—Noiztik zabilta Bartzelonan?

—Duela bost urte ikasketak egitera etorri nintzen eta ikasten nenbilen bitartean estudio batean hasi nintzen lanean, ordu-tik hemen nabil, lehenengo beste estudio batzuetan lanean eta orain dela ia hiru urte nire estudioan.
—Zer topa dezakegu zure bitxi bilduma barrian?
—Bilduma hau esperimientua izan da, bitxien munduan erdi sartuta nenbilen enpresa batentzako lan egiten dudalako, eta beti interesatu izan zaidalako. Ikerketaren ildotik abiatuta, bitxi tradizionalen esentzia hartu nuen eta nolabaiteko

berrinterpretazio edo eraldaketa egin nuen.
—Normalean zeintzuk izaten dira erabiltzen dituzun materialak?
—Material tradizionalak batik bat, hasiera batean zilarragaz hasi nintzen, urrez bainatuta dagoen zilarragaz, alegia.
—Zelan bururatu zitzaizun bitxien diseinuan lan egitea?
—Interesa neukalako, baita eskura neukalako ere. Lan prozesuari dagokionez, eskura ditudan ideia edo une batean ikusten dudana zerbaitetan oinarritzen naiz. Ez daukat inspirazio iturririk, ideiak aurreiku-

«Bitxi bilduma hau ez dago modaren ikuspegitik abiatuta»

si barik agertzen dira, bat-batean deigarria iruditzen zaidan elementuren bat izan daiteke. Lanean nagoenean buruan dauzka-dan ideiak, beste diseinugileen lan edo kaletik doan emakume batek bitxiak zelan eroaten dituen ikusita lan egiten dut.
—Nori zuzenduta daude sortutako bitxi hauek?
—Bitxiak egiterako orduan ez dut inorengan pentsatu. Ez dago modaren ikuspegitik abiatuta. Hala ere, suposatzen dut agian, amama batek ez lituzkela erabiliko. Jende gazteak hobeto ulertuko lituzke.
—Zelan ikusten duzu, gaur egun, bitxien merkatua?
—Orain, merkatua nahiko lasai dagoela esango nuke. Badaude merkatutik kanpo kokatzen diren egile batzuk, bai forma aldetik, eta bai bitxia benetan zer den dakitenak, eta beraz, zentzu horretan, gero eta lan interesgarriagoak daudela iruditzen zait. Hala ere, oraindik egile asko ez daude merkatuan sartuta, merkatutik at baizik, beste zirkutu batzuetan, alegia. o

Getxoko leku izenak ezagutu, ikasi



Ibilbide Toponimikoak 2009
Zelan deitzen da toki hau? Zer esan nahi du horrek? Zergatik deitzen da hau horrela? Ezagutzen dituzu Getxoko toki izenak?

Udaberri honetan, 9 ibilbidetan, ezagutu Getxoko toponimia.				
Martxoak 17	18:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Aiboa		3,6 Km
Martxoak 27	18:00	Bolua-Neguri-Ereaga		3,4 Km
Apirilak 1	19:00	XX. mendeko euskararen ibilbidea: Portu Zaharrean hasita		1 Km
Apirilak 7	19:00	Bolua-Santa Koloma-Bolua-Aiboa		2 Km
Apirilak 21	19:00	Tellete-Ereaga-Arrigunaga-Aixerota-Bidezabal		3 Km
Apirilak 30	19:00	Bidezabal-San Inazio-Neguri		3 Km
Maiatzak 5	19:00	XX. mendeko euskararen ibilbidea: Portu Zaharrean hasita		1 Km
Maiatzak 13	19:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Aiboa		3,6 Km
Maiatzak 21	19:00	Andra Mari-Sakuskune-Diliz-Andra Mari		5,9 Km
Maiatzak 29	19:00	Andra Mari-Diliz-Galea-Andra Mari		5,7 Km
Ekainak 1	19:00	Bizkaia Zubia-Zugatarte-Ereaga-Igeretxe		4,1 Km
Ekainak 9	19:00	Bolua-Neguri-Ereaga		3,4 Km
Ekainak 17	19:00	Tellete-Ereaga-Arrigunaga-Aixerota-Bidezabal		3 Km

Ibilbideak euskaraz izango dira



Eskatu informazioa Udal Turismo Bulegoan edo deitu 688 635 350.
Izena eman behar da telefono honetan: 688 635 350



Txema Oliveros > Zuazo parkea (Gobelaurre)

“Erromoko lagun-taldeen bilgune zen; jaietan tortilla txapelketa egiten genuen”



“Orduan La campa de Fernan esaten genion eta Erromon horrela entzungo diozu jendeari”

Nire umetako leku kuttuna Zuazo Parkea da. Orduan “La campa de Fernan” esaten genion eta Erromon horrela entzungo diozu jendeari. Gaur egun Gobelaurre Parkea dago bertan, baina, 60 eta 70 urteetako hamarkadetan zabalagoa zen. Hareazko futbol zelaia zegoen bertan, arboladia eta baserri bakarra. Aurrealdean biraderadun iturria zuen eta horixe dut gogoan, egun sargorietan hantxe ura edan eta freskatzen ginela. Erromoko lagun-talde guztiak biltzeko tokia zen, futbolearen aritzeko eta jaietan tortilla txapelketa ospetsua egiteko lekua.

Pixka bat harago Arenas Futbol Taldeko zelaia zegoen eta 11 urtegar hasi nintzen jokatzeko, garai hartan ezin baitzen gazteago hasi. Halere, zelaia 8 urtegar sartu nintzen. Atsedendietan, partida egunetan egiten zen zozketan saritutako zenbakia iragartzen nuen arbeltxo bat eskuetan neramala, zelaia ertzetik ibilbidea eginez.

21 denboralditan izan nintzen Arenasko jokalaria, 8 urtean kapitain lanetan, Juanjo Lasuen atezainak lekukoa pasatu zidanean. Bera izan zen Arenasen urte gehien egin zuen jokalaria, hogeita hiru, hain zuzen.

Aurten beteko ditu klubak 100 urte eta ekitaldi ugari antolatuko dira urteurrena ospatzeko. Ekainaren 13an, adibidez, Gobela Zelaian Athletic-eko beterano eta Arenasko beteranoen arteko partida jokatu dugu 11:30ean. Niri egokitu dizkidate kapitain lanak eta ilusioz gainezka nabil, egun horretan ondo jokatzeko gogo itzelagaz. Horretarako hasi gara fisikoki prestatzen eta “Txitto Taldea” hor ibiliko da jo eta su animatzen. Gainera, amak esan dit amama eta aitite egun horretan ezkondu zirela eta kointzidentzia polit horrek zortea emango digulakoan nago... beharko!!

Toponimoa > **Gobelaurre**

Gobelaurre (kalea):

1977an Prolongacion de Amaya izenaren ordean Gobelaurre toponimoa berreskuratzeko erabaki zuen udalak. Izenaren osagaiak argiak dira, Gobela izena eta aurre posposizioa, baina kokapena ez bide da kalearena, hurbil bazegoen ere. Gobelaurre: izen hau agertzen da udalak XIX. mendean desamortizazioak behartuta saldu behar izan zituen herri-lurren artean.

Jose Maria Txabarri Zuazo (plaza):

Jose Maria Txabarri Zuazo Getxoko zinegotzia izan zen.

Getxoko leku izenak liburutik ateratako informazioa

Doner Kebab

Janari turkiarra bogan dagoelako



Mohammad Rafaqat eta Haji Ahmad, jatetxeko atarian

Urte askoan Villabotas jatetxea izandakoak, Turkiako zaporeei pasa zien lekukoa orain urte eta erdi inguru. Mohammad Rafaqatek zabaldu zuen Villaondoeta kaleko Doner Kebab jatetxea; gaur egun, Haji Ahmadedagaz batera ateratzen du aurrera. Biak pakistandarrak dira; Rafaqat orain bost urte etorri zen Algortara, Kebaba, gutxi batzuek ezagutzen zuten otarteko exotikoa baino ez zenean: “Ni heldu nintzenean, janari turkiarra ematen zuen jatetxe bat baino ez zegoen; orain, herri guztietan daude”. Zaila da asmatzea zein izan den falafel zein oilasko edo arkume haragiz egindako otartekoen arrakasta: “Agian hemengo janariaren oso ezberdina delako izango da”. Bisita txartelean ondo adierazten dute janari azkarra dela, hamburgesei konpetentzia egin guran. Askok uste du, Doner Kebab janari katea erraldi baten izena dela, baina oker dabil-

tza. Izan ere, donerra, sutan kiskaltzen den haragi zati handiaren izena da, hortik jatetxe gehienek izena. Haragiagaz batera, saltsak dira zaporearen funtsa: “Alde batetik, saltsa zuria daukagu; maionesa, jogurta, esnea, azukrea, perrexila eta berakatzeko eginda dago. Bestetik, gorria edo pikantea erabiltzen dugu”. Bai saltsak, baita sukaldarako behar dituzten beste lehengaiak ere, Alemaniatik ekartzen dituzte: “Turkiar asko dago Alemaniaren eta hor daude fabrika gehienak. Haragia da hemen lortzen dugun bakarra, Gasteizen ekoizten dute”. Hormetan Bollywodeko aktoreen argazkiak ikus daitezke: “Pakistanen eta Indian hizkuntza bera egiten da, urdua; horregatik, zine eta musika bera kontsumitzen dugu. Bezeroek, pelikula jartzeko eskatzen digute”.

Villaondoeta 2, **ALGORTA**
Tf. 94 601 65 45

KONTXI ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, **ALGORTA**
Tf. 94 491 02 93

GOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Telletxe 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01

ARTAZA ETXEA

jatetxeaa

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25

AREETA

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TF./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI -
GETXO

basalbobaserria@yahoo.com



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA

Arriluze z.g. • Tf.& Fax: 94 491 53 21

ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAGAZ
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z.g. (Sarrikobasogaz bat)

Tf. 94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1	Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13	Tf. 94 460 02 88
GETXO	ALGORTA

Usategi
kafetegia



Usategi parkea z.g.
Algorta

**Tf. erreserbak: 94 460 64 13*

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)

Une honetan edozein dieta, asmo edo behar egiteko prest ikusiko duzu zeure burua, indartsu eta gogotsu. Gainera, uda laster dator eta oso umore oneko eta baikor zaude, horrek ere lagunduko dizu.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)

Zure lan egoera hobetuko duen eskaintzak jasoko dituzu, adi telefonoari, beraz. Dena den, ez hartu inolako erabakirik gauzak pentsatu barik. Gerta daiteke lehenengoari baietza ematea eta gero lanpostu hobe eskaintzea.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)

Ondo ezagutzen duzun gizon bategaz arazoak izan ditzakezu, argi ibili, beraz. Ez egiozu berehala aurre egin, gauzak ondo pentsatuta eta zuhurtasun handiz jokatu, bestela kalte handia egin diezazuke.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)

Oraindino aurrera, bikoteagaz izango duzun harremana gero eta hobe izango da; oso ondo moldatzen hasiko zarete, nahiz eta hasiera batean, inork ez zuen pentsatzen asko iraungo zenutenik.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)

Azkeneko gertaerak direla eta animoak behera egin dizu eta zure alde pessimista eta negatiboen ateratzen ari zara. Ez etsi, bestela zure egoera gero eta txarragoa izango da.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)

Kotxea erosi gura eta arazoak baino ez dituzu izan banketxeokoz eta kontzesionariokoz. Lasai, uste baino lehen kotxea zure etxeko garajea ikusi ahal izango dizu, eta bidaia politik egin ahal izango dituzu.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)

Zure urtebetetze egunean espero ez zenuen pakete bat jasoko duzu etxean. Ireki, eta hara! Harremana hausi zenuen lagun horren oparia! Agian, beragaz zenuen harremana berreskuratzeko garaia da.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)

Kaletik zoazela diru kopuru handia topatuko duzu diru-zorro batean. Zure esku dago bueltatzea edo zuretzat gordetzea; hori bai, arrangura zure buruaz jabetuko da.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)

Etxean edo lanean istripua izateko arriskua izango duzu; beraz, inoiz baino kontu handiagoagaz ibili beharko zara, hurrengo hilabetean zure burua makuluakaz ikusi gura ez baduzu.

META



(Irailak 17 urriak 16)

Jaten duzun zer edo zerk kalte egin diezazuke; beraz, hozkailuan duzun jaki guztien etiketak ondo begitu, bestela egun batzuk komunean pasatuko dituzu.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)

Egunero saiatzen zara gauzak aldatzen hobera egin dezaten, baina inolako emaitzarik barik. Ez du merezi, denbora galtzen ari zara eta gainera, erantzukizuna ez da zurea bakarrik.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)


Lagunakaz parranda botatzera zoazenean oso interesantea irudituko zaizun pertsona bat ezagutuko duzu, horrek zure albokoan txutxu-mutxuak eragingo ditu.



irratia 108 fm

www.koskairratia.com

[komikia]



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker eskuma

1. ... izan, atsegin izan. Horrela deritzo leizeari toki askotan. 2. Bizkaieraz, atera. Gizon izena. 3. Karta joko berezi. Estalkia. 4. Tente. Hertsiak. 5. Nahaste handia. 6. (Her.) Anarkista. 7. Sustrai. Talde. 8. Lege. Zerbaiten norabidea, lastertasuna eta distantzia zehazten dituen tresna. 9. Sinbolo. Ura maite duen hegazti. 10. Zer aldetara. Abesbatza.

Goitik behera

1. Oso gogorra. Erro, sustrai 2. Gipuzkoako herria, Goierrin. Lagun ..., etsai 3. Joko-txartela. Zauritu aditzaren oina, azken letra barik. 4. Zoro. Batuketaren emaitza. 5. Emakume izen eslaviarra. 6. Erresuma eta inperio eslaviarretako agintari gorenak. 7. Lapur txiki. Aurpegiko zulo. 8. Gai. Erretzen den zerbaitek sortzen duen gai beltz. 9. Metal-hondakina. Uhin. 10. Moduak. Amasten duguna.

Soluzioak

A	N	H	O	K		V	H	O	N
E	L	V	H			H	N	K	I
H	V	D	V	H		N	V	H	V
I	L	E		H	V	L	Z	N	Z
V	O	K	H	V	N	V			
			V	S	V	B	V	N	V
K	V	I	X	L	I	L	N	Z	
V	H	L			T	O	R	V	L
H		I	K	E	R	A	V	A	V
E	Z		L	E	T		K	E	L

asmatu eta irabazi > argia produktuak



Nor da?

- “Ez dok Amairu” taldeko kide izan zen
- Folk musika landu du batez ere
- “Bizkaia maite, atzo goizean ikusi zintudan...”

> Aurrekoaren erantzuna: Fernando Llorente

> Irabazlea: **Alain Pitarque***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidalai erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean argia produktuak zozketatuko ditugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

argia

astekariaren biru
bilabeteko harpidetza doan



+



•Jolasak eta
liburuak

www.argia.com



JOSE IGNACIO MADARIAGAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ALGORTAKO EHIZTARIAK BURGOSEN, 1971

Garai batean euskaldun asko kanpora joaten zen ehizan. Algortar hauek esaterako, Agesen (Burgos) zeukaten ehiza-esparrua, udalak bost urterako alokatua, etxebizitzagaz batera. Galeper sasoian urtero-urtero han izaten ziren astebetean, hamabost egunean,... bakoitzak ahal zuena. Jateko, beraien artean konpontzen ziren; beti egoten ziren bizpahiru, sukalde kontuetan besteak baino trebeagoak. Dena dela, urte batzuetan hemendik eroan zuten sukaldaria, Jose Ramon Pascual. Ez zen ehiza-esparruko bazkide, baina uzten zioten ehizan egiten, ordu bietan bazkaria eta zortzietan afaria mahaian izateko baldintzagaz. ○

Goitik hasita, ezkerretik eskumara

1. **lerroa:** Herriko guardia zibila, Alfonso Elexpuru, Inazio Intxausti, Anselmo Bidegorri, Ignazio Arenaza "Chaqueton" (ate aurrean).
2. **lerroa:** Estefani Campos, Jesus Etxebarria.
3. **lerroa:** Ramontxu Agirremota, Sabin Intxausti, Jose Luis Tirado, Javier Campos bere txakurragaz.
4. **lerroa:** Jesusito Etxebarria, Iñaki Butron "Potolo" ("Baltza" bere txakurragaz), Pablo Mancisidor, Txutxi Larrauri.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

ARMANDO RIBEIRO > Athletic-eko atezaina

“Txikitatik izan dut txakurra; pertsonak beste maite ditut ”

Testua: Maitane Nerekan Argazkia: Asier Mentxaka



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
Sinplea eta zintzoa.

Zer izan gura zenuen txikitan?
Futbolari profesionala izateagaz amesten nuen.

Zerk ematen dizu beldurra?
Nire semei eta senideei zer edo zer txarra gertatzea.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Braveheart (Mel Gibson). Oso polita da bere herria eta jendea defendatzeko egiten duena ikustea.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke?
Txakurrak oso gustuko ditut. Txikitatik izan dut txakurra etxean; oso maitekorrak dira eta pertsonak beste maite ditut.

Barriro egingo zenukeen bidaiarik badago?
Zoriturrez ezin izan dut lar bidaiatu. Baina itsas bidaia egin gura nuke, gehien maite ditudan gauza biakaz gozatu ahal izateko: nire semeak eta itsasoa.

Zure lanbidearen alderik politena?
Gauzak lortzen ditugunean gelditzen zaigun sentsazioa. Futbol zelaian nagoenean, milaka pertsona inguruan ditudala eta gauzak ondo ateratzen zaizkidanean, bizipen ikaragarria da.

Zure lanbidearen alderik txarrena?
Galtzea, gauzak ondo ateratzen ez direnean, lesionatzea...

Zure amets setako bat?
Nire seme bien amets guztiak betetzea.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?
Sopela. Etxetik urrun egon naizen denborak, nire jaioterria asko maite dudala ikusten lagundu dit. Behar dudan guztia daukat hemen. ○

LABURREAN— Uribe Kostan baditugu “futbol izarrak”. Horieta bat da, Armando Ribeiro (Sopela, 1971), Athletic-eko atezaina. Talde ezberdinetatik pasa da Bilbora etorri aurretik. 1995etik 1998ra bitartean, Alavesen ibili zen; ondoren, Barakaldo taldeagaz jokatu zuen urte betez. 1999tik 2007ra arte, Andaluzia aldean ibili zen, Cadiz taldean. 2007an aldiz, bere bihotzeko taldea den Athletic-era etortzeko aukera eman zioten eta berak gustura onartu zuen. 38 urte dituen arren, sasoian dago Sopelako atezaina. Aurten, Bizkaia hankaz gora ipini duen Kopako Errege finala bizitzeko aukera izan du.



Bai Euskarari Ziurtagiria
balioa eta berrikuntza · valor e innovación



1.600 entitate baino gehiago ziur daude

EKAINA 2009 JUNIO

KANTUKETAN

ROMERO SANTA EUGENIA PLAZAKO KARPAK // CARPA DE LA PLAZA SANTA EUGENIA DE ROMO

19 21:00
EUSKARA SHOWA (6. EDIZIOA / 6ª EDICIÓN)

*Karaoke~
Interkulturala*

+ MUNDUEKO GASTRONOMIA, FESTA, DANTZA ETA GERO APERTA.

20 22:00
KONTZERTUA / CONCIERTO

*Sugan +
Gatibu~*

